



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**GAIA DA**

**Internet telefono mugikorrean**



KONTSUMOBIDE  
**ALDIZKARIA**

2013

18 zk.



## 24 ORDU ONLINE

Gaur egun, komunikazioa gailu mugikorrei loturik dago erabat. Gailu horien erabilera modu unibertsalean zabaldua dago, berehalako komunikazio iraunkorra eta globalizatua ahalbidetzen baitute. Eremu pertsonaleko, sozialeko edo profesionaleko pertsonekin harremanetan jar gaitezke klik bakarra eginez, edozein lekutatik eta edozein unetan.



Azken estatistiken arabera, pertsona baino gailu mugikor gehiago dago munduan, hau da, ia familia guztietan dago gailu mugikorren bat edo gehiago (telefonoa, smartphoena, tableta, PDA eta abar).

Etengabe bilakatzen ari den merkatu teknologikoak gailu berriak sortzen ditu urtero, eta gero eta erakargarriagoak dira kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat. Izan ere, oso arinak dira, erabilera gehiago dituzte, datuak biltegiratzeko ahalmen handiagoa eta informazioa prozesatzeko abiadura handiagoa dute, eta ez da beharrezkoa sare-kable bati eta leku jakin batean konektatuta egotea.

Gailu mugikor horiek eskaintzen duten erosotasuna eta malgutasuna dela-eta, horien erabilera oso bizkor zabaldu da. Izan ere, hainbat alderdi errazten dituzte, hala nola beste pertsona batzuekiko harremanak, datu-trukea, web-informazioa kontsumitzeko edo sortzeko aukera, online erosketak, m-learninga, gizarte-sareen bidezko sozializazioa, aisia eta abar.



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

Teknologia horrek abantailak dakartza, baina, aldi berean, eguneko 24 orduetan gauzak partekatzeko eta elkarreragiteko ohitura dela-eta, premia berriak eta mendetasunak ere sortzen ditu.

Bizkor bilakatzen ari den teknologia da, eta bere merkaturatze intentsiboaren ondorioz, kontsumitzaileek gero eta errazago eskura dezakete, eta erabiltzen diren gailuen eta telefonia-zerbitzuen kontratazioen kopurua esponentzialki handitzen ari da.

“Konektatuta” egon nahi duen pertsona batek gailu mugikor bat erosi behar du, eta sare-zerbitzua kontratatu behar du telekomunikazio-operadoreen batekin. Duela hilabete gutxi arte, gailu horiek oparitu egiten ziren telefonia-operadoreekin linea mugikor bat kontratatzen zenean. Kostu hori konpentsatzeko, 18-24 hilabetetan irauteko baldintzak ezartzen zituzten konpainiek.

## KONTSUMOBIDE ALDIZKARIA





Julenek 15 urte ditu eta telefono mugikorra aldatu nahi du. Bere lagunek azkeneko Smartphonea daukate, eta berak ere horrelako bat nahi du; era horretan, txateatzeko edota Tuentiko profilean sartzeko aplikazioak jaitsi ahal izango ditu. Aurretik, ordea, amarekin hitz egin beharko du, eros diezaion. Nola konbentzituko du ama, mugikor zaharra oraindik ongi badabil? Julene burua hausten ari da, ama konbentzitzeko argudio onak aurkitu nahian.



## NOLAKO GAILU MUGIKORRAK DAUDE?

■ **Telefono mugikorrak.** Erabiltzen diren oinarrizkoenak 2G (bigarren belaunaldia) deitutakoak dira, GPRS sistemakoak; horiekin ahots bidez komunika daiteke, mezu laburrak (SMS) eta multimedia-mezuak (MMS) bidal daitezke, eta WAP bidezko Interneterako sarbidea lor daiteke.

■ **Smartphonea.** Telefono mugikor adimendunak dira (3G eta 4G). UMTS teknologia daukate, eta datu-transmisorako ahalmen handiagoa eta abiadura handiko konexioa ahalbidetzen dute, baita Interneteko WEB nabigazioa ere; bestalde, gailu mugikorretarako aplikazio berriak (APPak) erabiltzea errazten dute. Gainera, gailua erabiltzeko segurtasun-neurriak dituzte. Halaber, metatze-ahalmen handiagoa eta multimedia-baliabide hobeak dituzte (argazki- eta bideo-kamera, audio-erreproduzigailua, ukipen-pantaila...). Egia esan, sakelako miniordenagailuak dira.

■ **Tableta.** Gailu mugikorrak dira, Smartphoneak baino handiagoak, baina ordenagailu eramangarriak baino txikiagoak. Netbookak ordezkatu



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

*dituzte beren 3G teknologiari esker, arinagoak dira, ukipen-pantaila dute eta honako hauetarako sarbidea ahalbidetzen dute kablerik gabe eta Wifi konexio bidez: Internet, gizarte-sareak, bideokonferentziak, jokoak, musika eta bideoak (online). Gainera, Bluetooth bidez dokumentuak partekatzea ere ahalbidetzen dute. PC bihur daitezke USB irteeran teklatu bat, sagu bat edo bozgoragailu bat konektatuta. Gainera, modelo berri batzuk Smartphone bihur daitezke, eta ahots-deiak egin daitezke SIM txartel bat jarrita (mugikorrek dutenaren berdina) eta mikrofono- eta bozgoragailu-baliabideak erabilita.*

Teknologia mugikorrek gero eta euskarri arinagoak eskaintzen ditu. Euskarri horiek kalitate hobea eskaintzen dute multimedia-baliabideetan (audioa, irudia, bideoa), pantaila hobeak dituzte, eta, batez ere, konektibitatea eta datu-transmisioa hobetzen dute. Azken batean, kontsumitzaileen eskariari erantzuten diote.

- **Beste euskarri mugikor batzuk:**  
PDA, bideo-kontsolak, mp3, mp4.

## KONTSUMOBIDE ALDIZKARIA

2012







## ZER BEHAR DA GAILU MUGIKOR BATETIK INTERNETEN KONEKTATZEKO?

Terminal mugikor bat (ikus aurreko idatz-zatia) eta Interneteko zerbitzarirako konexioa.


- **TarjetaSIM barne-txartela.** Konexio hori lortzeko, datuen edo datu eta ahotsaren zerbitzua kontratatu behar da aukeratzen den operadorearekin, aurreordainketa-modalitatean edo kontratu-modalitatean.
- **SIM kanpo-txartela USB (pintxoa).** Konexio hori lortzeko, datuen zerbitzua kontratatu behar da aukeratzen den operadorearekin, aurreordainketa-modalitatean edo kontratu-modalitatean.

- **Wifi.** Konexio hori haririk gabekoa da, eta ez da ezein zerbitzurik kontratatu behar. Gailu mugikorra router bati (ADSL etxean edo bulegoan) konektatzen zaio, edo, bestela, leku publikoetan egoten diren eta normalean doakoak izaten diren hostpostei (konexio-puntuei). Seinalea jaso ahal izateko, gailu mugikorrek 20 metrora egon behar du gehienez.

### GARRANTZITSUA:

Ez da komeni Wifi sare "irekietara", hau da, pasahitzik eskatzen ez dutenetara konektatzea. Leku publikoetan ohikoak izaten dira. DOAKOAK dira, baina kanal horretatik egiten den datu-transmisioa arriskuan jar dezaketen konexioak dira.

TGailua erraz erasotzeko moduan uzten dute. Izan ere, irekita uzten dute eta, beraz, gailu mugikorrean gordeta dagoen informazioan (kontaktuen agendak, Interneteko nabigazio-historiala, pasahitzak edota gailuan irekitako gizarte-sareetako profilen datuak) sar daitezkeen malwareen (software gaiztoen) edozein erasoren arriskupean. Adibidez,





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

identitatea lapurtzeko, datu pertsonalak (irudiak, kontaktuak, emailak) lapurtzeko edo birusen batek infektatzeko arriskua dago. Azken batean, pertsonaren pribatutasuna jartzen da arriskuan.

Beraz, sarbidea autentifikatzea eskatzen duten eta erabiltzailea eta pasahitza zifratuta dituzten (16 karaktere alfanumeriko: letrak eta zenbakiak) [Wifi konexio seguruak](#) erabiltzea gomendatzen da.

Pasahitza sekretuan gorde behar da, ageriko lekuetan idatzita utzi gabe (postitetan edo pasahitzen zerrendetan, adibidez), gure gune pribatuan sartzeko aukera errazten baitute. Telefono mugikorra euskarri txikia da, eramangarria eta biltegitze-ahalmen handia duena. Horregatik, segurtasun-neurriak eta erabilera arduratsuko neurriak instalatu behar dira, ordenagailu batean bezalaxe.





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

*Julenek azaldu dio amari XYZ modeloko Smartphonea nahi duela, Jone lagunarena bezalakoa. Azaldu dionez, modelo horrekin diru gutxiago gastatuko du hilean, hainbeste dei egingo ez dituelako eta SMSrik bidaliko ez duelako. Interneterako konexioa baino ez du beharko, mugikor berriarekin berehalako mezularitzako aplikazio baten bidez (WhatsApp, Line, Mesenger) komunikatuko baita. Amari aurreztearena gustatu zaio, baina mugikorrean Internet edukitzearena ez hainbeste. Azkenean, mugikorren konpainiara hurbiltzea erabaki dute, nolako eskaintzak eta tarifak dauden ikustera eta Smartphone horiek zer diren galdetzera.*


## **NOLAKO TARIFAK KONTRATATU?**

Eskaintza askotarikoa da. Garrantzitsua da informatzea eta operadore desberdinen eskaintzak konparatzea, ondo aukeratzeko.

Tarifaren kostua ez ezik, ematen dituzten estaldurak eta zerbitzuak (ahotsa, datuak edo biak), eskatzen dituzten

iraupen-baldintzak, zerbitzu osagarriak, gailuen kostua, galera- edo lapurreta-aseguruak eta abar ere kontuan hartu behar dira.

Operadore mugikorrek komunikazioaren "autopistak" jartzen dituzte erabiltzaileen eskura, eta erabiltzaileek beren beharretara hobekien egokitzen diren lineak kontratatzen dituzte.







Erabilera motaren arabera aukera daitezke tarifak:

- *Ahotsa eta SMSak bidaltzeko aukera.*
- *Datuak soilik, konexioen arabera, kontsumitutako MB kopuruaren arabera edo tarifa finkoaren arabera Interneten nabigatzeko.*
- *Mistoak, zerbitzu guztiak eskaintzen dituztenak: telefono mugikorra Internetekin, telefono finkoa, Internet kable bidez, telebista kable bidez eta abar; eta, hori guztia, prezio orokor bat ezarrita.*

Eskaintzak aldatu egiten dira telekomunikazio-merkatuen bilakaeraren arabera.

*Aurtengo udan, Europan barrena bidaia bat egiteko asmoa du familiak, interrail bidez seguruenik. Juleneri ez zaio oso ongi iruditzen hilabete bat lagunekin harremanetan egon gabe egotea, baina Smartphone berria lortzen badu, WhatsApp bidez jarri ahal izango da harremanetan.*

## **ETA HERRIALDETIK KANPORA BIDAIATZEN DENEAN BA AL DAGO ESTALDURARIK?**

Normalean, kontratatzen diren tarifek estaldura nazionala izaten dute. Atzerrira (EBn nahiz EBtik kanpora) bidaiatzen bada, jakin beharra dago kontratatutako operadoreak bidaiatzen den herrialdean estaldurarik ba ote duen, eta zer baldintzatan. Kasu horietan, operadoreari galdetu behar zaio nolako Roaming tarifa eskaintzen duen.





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

Roaminga honako honi deritzo: gailu batek estaldura-eremu batetik bestera mugitzeko duen ahalmenari, betiere sare bati konektatuta eta konexioa galdu gabe.

Jakin beharra dago operadore hornitzaileak zer herrialdetan eskaintzen duen estaldura, eta zer herrialdetan ez. Hori operadoreek bezeroei zerbitzua bermatzeko dituzten akordioen arabera izango da. Roamingaren tarifak tarifa nazionalak baino askoz garestiagoak dira.

## GARRANTZITSUA:

Atzerrira bidaiatzen bada, aldez aurretik ROAMING aukera aktibatu beharko da operadorearen bitartez, eta konexio horien kostua jakin beharko da (kostu hori bidaiatzen den "eremuko" tarifen arabera izango da). Operadoreek eremu desberdinak ezartzen dituzte, baita eremu bakoitzerako prezioak ere.

EBn barrena bidaiatzen bada, jakin beharra dago 2012ko uztailaren 1ean Europako Batzordeak honako hau ezarri zuela: EBko kide diren 28 Estatuari eta Europako Esparru Ekonomikoko hiru

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO  
ALDIZKARIA

2013





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

herrialdeei (Islandia, Liechtenstein eta Norvegiari) zerbitzua ematen dieten operadoreek Batzordeak Roaming tarifa gisa ezarritako gehienekoak baino tarifa baxuagoak eskaini behar dituzte.

Helburua honako hau da: telefonia-operadoreen artean gehieneko tarifa batzuk bateratzea, Europako kontsumitzaileenganako gehiegikeriak saihesteko (eremu nazionaletik kanpo beren gailu mugikorren bidez –telefonoa, Smartphonea, Tableta eta abar– deiak egiten dituztenean, SMSak bidaltzen dituztenean edo Internetera konektatzen direnean, adibidez).



## EUROTARIFAK

(2013-7-1etik 2014-6-30era)

- *Dei bat egitea: 24 zentimo/minutu (BEZ gabe)*
- *Dei bat jasotzea: 7 zentimo/minutu (BEZ gabe)*
- *SMS bat bidaltzea: 8 zentimo/minutu (BEZ gabe)*
- *SMS bat jasotzea: Doan.*
- *Datuak deskargatzea: 45 zentimo/minutu (BEZ gabe)*

Bestalde, neurritz kanpoko fakturak saihesteko, operadoreek hileko 50 €-ko (BEZ gabe) "etendura-mugako" mekanismo bat aplikatu behar die



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

bezeroei. Kontsumoa 50 €-ra iristen denean, datuak deskargatzeko zerbitzua automatikoki etengo da, beste kontsumo-muga bat eskatu dugunean izan ezik. Gainera, gehieneko kontsumoaren % 80ra iristen garenean, operadoreak horren berri eman beharko digu SMS baten bidez. Etendura-mekanismoa EBko herrialdeetan nahiz gainerako herrialdeetan aplikatu behar da.

## **Kontsumobideren informazio eta gomendio gehiago honako honetan:**

[http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb\\_temas\\_telefonia\\_movil/es\\_sll/telefonía\\_movil.html](http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb_temas_telefonia_movil/es_sll/telefonía_movil.html)

## **NOLA KONTROLATU INTERNET MUGIKORRAREN GASTUA?**

Garrantzitsua da telefoniako operadorearekin zer kontratatu den, zer tarifa mota kontratatu den, denbora-mugarik edo datu-mugarik (MB) baduen eta abar jakitea. Kontratua ez ezik, faktura ere funtsezkoa da telefoniako gastua kontrolatzeko; izan ere, gastuaren jarraipena egitea eta fakturazioari dagokionez akatsak edo desadostasunak detektatzea ahalbidetzen du.



2013



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

Faktura hilero jasotzen da, postaz edo posta elektronikoz, eta faktura horretan biltzen diren kontzeptu guztien jarraipena egitea komeni da, esaterako: kontsumoa, kontratatutako zerbitzuak, zergak eta abar; desadostasunik izanez gero, dagokion erreklamazioa egin behar da lehenbailehen.

Kontratatutako tarifaren arabera, Interneten sartzeko baldintza batzuk ezarriko dira. Horien arabera, denborak, sarbide kopuruak edo transmititutako datu-bolumenak mugatuko dira, eta muga horiek gainditutakoan, aparte kobratuko da. Horren ondorioz, fakturaren zenbatekoa asko igo daiteke.

## GARRANTZITSUA:

Mugikorrean Internet nola erabiliko den jakin behar da, tarifa egokiena zein den balioesteko. Halaber, kontratatu den aukerara egokitutako kontsumoaren jarraipena egin behar da, fakturazioaldi osoan iraun dezan.

Adibidez: Interneten posta elektronikoa







# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

ikusteko edo nabigatzeko soilik sartzen denak bideoak ikusten, bideoak eta musika deskargatzen edo online jolasten aritzen denak baino askoz MB gutxiago kontsumituko ditu. Bi pertsona horiek tarifa bera kontratatzen badute, bigarren pertsonaren nabigazio-abiadura txikiagoa izango da, jakina, askoz MB gehiago kontsumitzen dituelako; bestela, dagokion aldian egindako aparteko kontsumoagatik gastu osagarri bat ordaindu beharko du.

## Kontsumobidek gomendatzen duenez:

Etxean ADSL Wifi dagoen kasuetan konexio horren bidez sartu behar da Interneten gailu mugikorrarekin. Izan ere, konexio horrek ahalmen handiagoa du, eta gailu mugikorraren tarifa-kontsumoa erregulatzea ahalbidetzen du, aldi osoan iraun dezan.

Deskargak, bideoak, jokoak eta abarrek kontratatutako MB asko kontsumitzen dituzte, eta gailu mugikorretik egin nahi den nabigazioa moteltzen dute.

## Kontsumobideko informazio eta gomendio gehiago honako honetan:

[http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb\\_temas\\_telefonia\\_movil/es\\_sll/telefonía\\_movil.html](http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb_temas_telefonia_movil/es_sll/telefonía_movil.html)

## Baliabidea:





Datu-kontsumoa kontrolatzea ahalbidetzen duten App-ak:

- *Traffic Monitor, Traffic Counter Extended, 3G Watchdog...*

*Dendan, Julenek modelo bat aukeratu du, eta haren amak Smartphone batek nola funtzionatzen duen jakin nahi du. Erraz erabiltzen dela dirudi, oso gutxi pisatzen du, eta aukera anitz ditu. Gainera, Interneten sartzeko ez da ezer egin behar, bakarrik konektatzen da!*

## **Nola erabil daitezke gailu mugikorrek modu seguruan?**

Bistan daude aparatu horien abantailak, baina oso garrantzitsua da hasiera-hasieratik modu arduratsu eta seguruan erabiltzeko moduan konfiguratzeara.

### **1.-Konfiguratu Smartphonearen (edo Tabletaren) sarbide-baldintzak eta erabilerak.**

- *Gailua beste inori artxibo, kontaktu edo nabigazio-historialerako sarbidea (pasahitzak) murrizteko moduan konfiguratzeara.*

### **2.-Erabili pasahitz seguruak eta indartsuak.**

- *Gailua beste inori artxibo, kontaktu edo nabigazio-historialerako sarbidea (pasahitzak) murrizteko moduan konfiguratzeara.*
- *Erabili pasahitz seguruak eta indartsuak.*
- *Sarbide-pasahitza.*
- *Blokeo-automatikoaren pasahitza, gailua erabiltzen ez duzun uneetarako.*





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

- Ez erabili pasahitz bera zerbitzu edo aplikazio desberdinetarako (gizarte-sareak, posta elektronikoa edo online bankua).
- Aldatu aldian-aldian.
- Ez gorde pasahitzak beste pertsona batzuek eskuragarri dituzten dokumentu edo lekuetan (postitak, koadernoak, diru-zorroa eta abar).
- Ez partekatu pasahitzak Interneten, ez posta elektronikoz, ez telefonoz.
- Erne pasahitzak berresteko eskatzen duen edozein emailekin.
- **BABESTU ETA ZIFRATU ARTXIBOAK** sarbide-pasahitzekin.

## Informazio gehiago honako helbide honetan:

[http://cert.inteco.es/Proteccion/Recomendaciones/Crear\\_una\\_contrasena\\_segura](http://cert.inteco.es/Proteccion/Recomendaciones/Crear_una_contrasena_segura)

**3.-Egin biltegitratutako datuen segurtasun-kopiak.**

**4.-Eguneratu sistema operatiboa eta fabrikatzaileek gomendatzen dituzten aplikazioak, ahultasunak murrizteko.**

**5.-Ziurtatu APPak web ofizialetatik deskargatzen dituzula. Ziurtatu, halaber, QRak fidagarriak direla.**

### APPak:

Smartphoneetan eta Tabletetan instala daitezkeen aplikazioak dira. Doakoak edo ordaintzekoak izan daitezke. Baimendutako aplikazio-dendetatik –“market places”– deskargatzen dira (App Store, Android Market/Play





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

Store...), kontratu baten baldintzak onartu ondoren. Gailuaren sistema operatiboaren arabera (Googleren Android, Appleren IOS, Microsoften Windows Phone, Blackberry...), deskarga egiteko beste denda birtual baterako sarbidea lortzen da.

## *Milaka APP daude eskuragarri.*

Ohikoenak gizarte-sareetara eta txatetara sartzeko APPak dira (Facebook, Twitter, Whats App, Line, Instagram, tu me, mitmi, joyn...).

## **GARRANTZITSUA:**

Irakurri aplikazioari lotutako kontratuak (softwarea erabiltzeko lizentzia); izan ere, APPa deskargatzean eta erabiltzean onartzen diren sarbide- eta erabilera-baldintza batzuk izaten dituzte (kontaktu-agendarako sarbidea, adibidez).

Kontuan hartu honako hauek: zer baimen emango zaizkio aplikazioaren jabeari? Zer egiten du aplikazioak gure Smartphonean instalatuta dagoenean?

Aplikazioak izan al ditzake malware elementuak (kontaktuak, telefonotik bidalitako SMSak edo nabigazioa zelatzeko, adibidez)? Zer zerbitzurekin du lotura APP honek? Zer kostu dauka? Nola eguneratzen da? Nola konpontzen dira APPak dituen akatsak? Nolako publizitatea sortuko du?

Aldez aurretik irakurri gabe, **EZ ONARTU, KLIK EGINEZ** kontratuko baldintzak.

KONTSUMOBIDE

ALL





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

## QR:

Barraz eta puntuz osatutako kodeak dira; gailu mugikorretatik eskanea daitezke, eta irudia argazki bat balitz bezala hartzen dute. Ondoren, dagokion programarekin, kode horiek biltzen duten informazioa deskodetzen da. Normalean, enpresen, lekuen, profil pertsonalen, artikuluen edo lehiaketen URL helbideak izaten dira.

Gero eta gehiago ikusten dira publizitate-karteletan, argitalpenetan, produktuen etiketetan edo ekitaldietan, betiere xede informatibo edo komertzialarekin.

## GARRANTZITSUA:

Ziurtatu kode segurua dela; bestela, ezusteko desatsegina izan dezakezu haren URLean sartzen zarenean.

## 6.-Itxi Wifi konexioa eta Bluetootha erabiltzen ez dituzunean.

Datuak lapur ditzakete, gailua piztuta badago bertan sar daitezke, edota birusak txerta ditzakete.

## 7.-Instalatu eta eguneratu antibirusa. Erne!

Gailu mugikor bat infektatu egin daiteke pc batekin konektatzean edota alderantziz egiten denean. Pendrive baten bidez ere infekta daiteke gailua; beraz, antibirusa berrikusi behar da bi euskarri elkarri



KONTSUMOBIDE  
DIZKARIA  
2013





konektatu aurretik eta konektatu ondoren.

## **8.-GPS - geobilagailua.**

Abantaila handia da gailua zenbait baldintzatan bilatzeko (lapurtu edo galdu denean, istripuetan eta abar), baina, aldi berean, gailua erabiltzen duten pertsonen jarraipena egiteko modua ere bada.

## **9.-Babestu zure datuak eta hirugarren pertsonenak (irudiak, bideoak eta datuak)**

Gero eta zailagoa da datu pertsonalak babestea, gailu mugikorren bidez sarera irekita baitaude beti. Horrek areagotu egiten ditu malwarea gailuetan eta datu pertsonaletan sartzeko aukerak. Hori dela-eta, garrantzitsua da datu horiek modu arduratsuan erabiltzea, modu egokian kudeatzea eta bidezko segurtasun-mekanismoak ezartzea.

Askotan, erabiltzaileak berak dira beren gailuetan sartzeko "atea

irekitzen dutenak", hain zuzen ere emailez jasotzen dituzten deskargen baldintzak eta/edo eskaerak onartzen dituztenean. Erraza da klik egitea, baina horrek dakarrenaz jabetu beharra dago. Esaterako, eskatu gabe ere, pertsona gehiagok lor dezakete sarbidea telefonoz edo emailez, beste pertsona baten kontaktu-agendan daudelako, besterik gabe.





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

## GARRANTZITSUA:

Ez partekatu eta ez argitaratu beste pertsonen argazkiak, bideoak, telefono-zenbakiak edo emailak haien baimenik gabe.

### 10.-Erne iruzurrekin.

Ez erantzun pasahitzak edo datu pertsonalak (adibidez, banku-kontuarenak) berresteko eskatzen dituzten SMSei, emailai edo deiei. (PHISING)

### 11.-Ordainketa seguruak egin.

Segurtasun-ziurtagiriak, konfiantzazko

zigiluak (online) eta kontsumo-arbitrajea eskaintzen duten web-orrietan.

Erabili ordainketa birtualeko sistemak (pay pal). Gero eta ordainketa-aukera gehiago daude; adibidez, telefono-linearen kontsumoaren bidez faktura daiteke kostua.

Garrantzitsua da egindako karguen jarraipena egitea eta baimendutakoak direla berrestea.

12.-Gailua beti **LOKALIZATUTA** eduki behar da, lapurretarik edo galerrarik izan ez dadin.

2013





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

13.-Mugikor zaharra bota aurretik, **DATUAK BEHIN BETIKO EZABATU** behar dira.

14.-**FAKTURA** ongi begiratu behar da, gastua kontrolatzeko eta akatsak detektatzeko..


Gailu mugikorren erabilerari lotutako prebentzioari buruzko informazio gehiago:


- Inteco-cert: <http://cert.inteco.es>
- Zentro Kriptologiko Nacionala: [https://www.ccn-cert.cni.es/index.php?option=com\\_docman&task=cat\\_](https://www.ccn-cert.cni.es/index.php?option=com_docman&task=cat_)

Azkenean, Interneteko tarifa finkoa kontratatu dute, eta Julenek bere hileko pagarekin ordainduko du.

Bere ama Smartphone bat eta bere aplikazioak modu arduratsuan erabiltzeko hartu beharreko neurriei buruz informatu da, eta Julene eta biok adostu dute gailua elkarrekin konfiguratzeko eta APPak deskargatu aurretik haien baldintzen ziurtasuna

izatea. Argazki-kamera bikaina da! Europako bidaian argazki politik aterako ditu! Baina bere lagunekin argazki pare bat soilik partekatuko ditu; gainerakoak itzultzean erakutsiko dizkie!





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**ZURI GERTA DAKIZUKE**

**Internet telefono mugikorrean**



KONTSUMOBIDE  
**ALDIZKARIA**

2013

18 zk.





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

*Gailu mugikorrek ia leku eta une guztietan komunikatzea eta informatzea ahalbidetzen dute. Horregatik dira hain baliagarriak laneko zein aisiako joan-etorrietan lokalizatuta eta informatuta egoteko. Gailu horiekin, Interneten nabiga daiteke, baita posta elektronikoa kontsultatu edo gizarte-sareetan parte hartu ere.*

*Faktura jasotzearekin batera ezustekorik jaso nahi ez badugu, atzerrira bidaiatzean kontuan izan beharreko alderdi bat gure telefonia-operadorearen Roaming eskaintza da.*

Otsailean, Iker Andorrara joan zen eskiatzera asteburu baterako. Andorrara iritsi zenean, dei pare bat egin zuen (familiari eta lagunei) iritsi zela jakinarazteko eta inbidia pixka bat emateko. Arratsaldean pistetara igo ziren. Eguraldi ikusgarria zegoen; luzaroan aritu zen mendiei argazkiak ateratzen, eta kirol horretan hasiberria zen Mikel lagunaren erorikoren bat betikotu zuen.

Argazkiak WhatsApp bidez partekatu zituen bere koadrilarekin.

Eguneroko bizitzara itzuli zenean eta asteburuko ihesaldia ia ahaztuta zuenean, mugikorraren faktura iritsi zitzaion. Kontsumoa ohikoaren bikoitza zen. Ezin zuen ulertu. Zer gertatu zen? Hasierako shockaren ondoren, operadoreari deitzeko eta erreklamazio bat jartzeko asmoa izan zuen. Baina







# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

banku-mugimenduetako kargua besterik ez zuen ikusi. Hobeto fakturari begiratu bat ematea. Faktura ikusi ondoren, hasieran sustoa eta haserrea sentitu zuen, baina horren ondoren, guztiz harrিতa geratu zen. Fakturaren xehetasunean oso tarifa garestiko deiak eta Internet-konexioa agertzen ziren, baina nola? Berak tarifa finkoa eta deiak doan dauzka-eta (kasualitatez, Andorran egon zen asteburuan)!

Zalantzarik gabe, operadoreari deitu zion erreklamazio argi bat jartzeko: mugikorrean tarifa finkoa kontratatuta zeukanez gero, ez zegoela kontzeptu horiek ordaintzeko prest.

Azkenik, operadorearen azalpenak entzun ondoren ulertu zuen fakturan ez zegoela akatsik. Bidaia garesti atera zitzaion. Ez zuen Roaming tarifa aktibatuta lurralde nazionaletik atera zenean. Gainera, jakin zuen Andorran ez direla eurotarifak aplikatzen. Seguru asko ez du elurretan igarotako asteburu hori ahaztuko!

## Horrelako egoerak saihesteko, KONTSUMOBIDEk honako hauek gomendatzen ditu:

- *Bidai bat egin aurretik gomendagarria da gure telefonia-operadorearen Roaming eskaintzak aztertzea eta gehien komeni zaiguna aurretiaz kontratatzea.*





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

■ Gure herrialdeko mugetatik kanpo gaudenean konektatuko garen operadore anfitrioiak hautatzeko aukera izaten da mugikor gehienetan. Gure bertako operadoreak aurretiatzko akordioa izaten du operadore anfitrioi jakin batekin, baina ez da beti merkeena izaten. Beraz, gomendagarria da tarifarik merkeenak dituen operadorea aukeratzea.

■ Bidaian gauden bitartean Internet erabili behar badugu, operadoreek eskaintzen dituzten Roamingerako datu-tarifa bereziak kontratatzea ideia ona izan daiteke.

■ Kontuz erabili behar dugu gure telefono mugikorreko GPSa gure herrialdearen mugetatik kanpo bidaiatzen dugunean. Smartphonetako aplikazio gehienek (adibidez Google Maps-ek) GPSko asistentzia-sistema bat erabiltzen dute, hau da, operadore telefonikoetako GPS zerbitzarietara konektatzen dira datuak azkarrago eta zehaztasun gehiagorekin jasotzeko. Beraz, datu-transferentziagatik ordaindu egin beharko dugu.

## Kontsumobideren informazio eta gomendio gehiago honako helbide honetan:

[http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb\\_temas\\_telefonia\\_movil/es\\_sll/telefoniamovil.html](http://www.kontsumobide.euskadi.net/y10-kbinfo03/es/contenidos/informacion/kb_temas_telefonia_movil/es_sll/telefoniamovil.html)







# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

## Telefoniaren eta mugikorreko Internetaren inguruko gatazkak konpontzeko bideak





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### Internet telefono mugikorrean



# KONTSUMOBIDE ALDIZKARIA

2013

18 zk.



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

Mugikorrean Internet kontratatzeak telefonoaren erabilera arduratsu batera eraman beharko luke; izan ere, telefonoa komunikaziorako eta datu pertsonalen biltegitratze masiborako gailu bat da. Datu pertsonalak babesteko, gomendagarria da terminal mugikorretan segurtasun-neurriak ezartzea eta terminal horiek modu egokian erabiltzeko eta arriskuei aurrea hartzeko informatuta egotea.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak bere eskubideen berri ez badu, ondo informatutako pertsona batek baino arrisku handiagoa izango du sarean iruzurrak, maulak eta lapurretak pairatzeko.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak honako eskubide hauek ditu:

## 1. Honako informazio hauek modu argi eta egiazkoan jasotzeko eskubidea:

- *Datu- eta ahots-zerbitzuak operadore mugikor batekin kontratatzeke baldintzak, betiere terminal mugikorrean aplikazioak (Appak) deskargatu eta instalatu aurretik.*
- *Aplikazioaren erabilera- eta pribatutasun-baldintzak, idatziz eta deskargatu aurretik.*
- *Zenbait aplikazioren bidez (gizarte-sareak, WhatsApp eta abar) sortutako datu-trafikoa non eta nola biltegitratzen den.*



KONTSUMOBIDE  
DIZKARIA  
2013





## *2. App batetik baja emateko eskubidea.*


Sinatu behar den kontratuak aplikazioan baja emateko baldintzak bildu behar ditu.

## *3. Datu pertsonalak babesteko eskubidea.*

Nazio-eremuko enpresak lan egiten duten legez (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa) derrigortuta daude bezeroen datu pertsonalak modu seguruan gordetzera eta soilik datuak jaso ziren helbururako erabiltzera.

Gainera, datu horien jabeari datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko aukera eman behar diote.

Hala ere, komeni da kontsumitzailea kontratazioetan eta erosketetan ematen dituen datu pertsonalez jabetzea. Egin nahi diren eragiketak egiteko beharrezkoak diren datuak soil-soilik emateak gure datu pertsonalak sarean





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

18 zk.

eta gure kontroletik kanpo eskuragarriak izatea saihestuko du.

Prebentzioa eta arreta ezinbestekoak dira gailu mugikorren erabileran babes handiena bermatzeko:

- 1. Lehen unetik terminala modu egokian konfiguratu behar duzu.*
- 2. Segurtasun-neurriak eta babes-softwarea ezarri behar duzu, eta eguneratu.*
- 3. Datu propioekin eta hirugarrenen datuekin arduratsua izan behar duzu.*

## Informazio gehiago datuak babesteko euskal bulegoan (DBEB):

[http://www.avpd.euskadi.net/s04-0003/es/contenidos/informacion/datos\\_en\\_la\\_red/es\\_datos/historias.html](http://www.avpd.euskadi.net/s04-0003/es/contenidos/informacion/datos_en_la_red/es_datos/historias.html)

# KONTSUMOBIDE ALDIZKARIA

